

**LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOKO GOI-MAILAKO TEKNIKARIA.
ESPEZIALITATEA: ERGONOMIA ETA PSIKOSOSIOLOGIA APLIKATUA VITORIA-
GASTEIZKO UDALAREN PREBENTZIO-ZERBITZURAKO**

Hautaketa-prozesu bat ireki da *Lanbide*-Euskal Enplegu Zerbitzuaren bidez, *Laneko Arriskuen Prebentzioko goi-mailako teknikari lanpostu* bat betetzeko, Prebentzio Zerbitzuan *aplikatutako ergonomia eta psikosozioologia espezialitatean*.

Hautaketa-prozesu honen emaitzak erabili ahal izango dira zerbitzu honen beharrak sortzen badira *Lanbide* – Euskal Enplegu Zerbitzuarekin lankidetzan, zerbitzuan zerrenda ofizialak sortu arte.

ESKAINTZAN BETE BEHARREKO BALDINTZAK:

- Goi-mailako unibertsitate-titulua edo unibertsitate-gradua.
- "b" gidatzeko baimena.
- Laneko arriskuen prebentziolari buruzko goi-mailako ikastaroa 3 espezialitateetan: segurtasuna, industria-higienea eta ergonomia eta psikosozioologia aplikatua edo Masterra: Laneko Segurtasuna eta Osasuna.
- Euskarazko C1 titulua edo baliokidea

LANPOSTUAREN ZEREGINAK:

- Udalan Prebentzioa aplikatzeko prozedura operatiboak betearaztea.
- Saileko kontsultetatik eratorritako prebentzio-arloko txosten teknikoak egitea.
- Erakundeko lanpostu bakoitzean dauden arriskuak identifikatzea eta baloratzea arrisku psikosozialen ebaluazioa eta azterketa ergonomikoak egiteko.
- Prebentziolari buruzko prestakuntza ematea.
- Lan-baldintzak ikuskatzea, lanpostuen baldintzak eta segurtasunik gabeko ekintzak egiaztatzeke.
- Udal-langileek beren eginkizunak betetzean izandako istripuak eta gorabeherak ikertzea, eta horiek eragin dituzten arrazoiak zehaztea.
- Laneko prebentzioa eta segurtasuna sustatzea.
- Arriskuen ebaluazioetan, ikuskapenetan, txosten teknikoetan eta istripuen ikerketetan antzemandako arriskuak minimizatzeke edo ezabatzeke prebentzio-neurriak proposatzea.
- Arriskuak kontrolatzeko eta ezabatzeke edo, hala badagokio, murrizteke neurri eta protokoloen ezarpena gainbegiratzea.

BESTE ZEREGINAK:

Udaleko Prebentzio Zerbitzuaren Burutzak laneko arriskuen prebentzioaren arloan agindutako beste edozein eginkizun.

HAUTATZEKO PROZEDURA

1. Lanbideren hautagaitzak jasotzea

- **Eskaintza abenduaren 15an aktibatuko da, 7:30etan, 162025014162 lan eskaintza zenbakiarekin.**

- Izena emateko azken eguna abenduaren 18a da, egun hori barne www.lanbide.euskadi.eus/inicio/

Gehienez ere 50 hautagai jasoko dira, lanposturako ezinbesteko baldintzak betetzen dituztenak, izen-ematearen ordenaren arabera.

Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuak ez ditu gainerako hautagaitzak bidaliko, eta, beraz, ez dira baloratuko.

Hautagaiaren ardura izango da **curriculuma eguneratua izatea eskaintzan izena emateko unean**, eta ez da onartuko curriculumak jaso ondoren informazioa aldatzea edo zabaltzea. Egiaztatuzat agertzen ez den lan esperientzia ez da kontuan hartuko, ezta puntuatuko ere.

2. Hautaketa-prozesua:

1.- Lanpostuaren eginkizunekin lotutako proba teoriko-praktikoa. Nahitaezkoa eta baztertzalea: Gehienez 80, gutxienez 40 puntu

2.- Prestakuntza osagarriaren balorazioa (ez sartzeko betekizunena). Lanpostuari dagokiona baloratuko da: 10 puntu, gehienez.

- o Psikologiako lizentziatura edo gradua: 6 puntu
- o Espezializazio-ikastaroak: 4 puntu

3.- Lanpostuaren eginkizunekin lotutako esperientzia: 8 puntu, gehienez.

4.- IT Txartelaren irizpideak: 2 puntu gehienez.

- 0,4 puntu egiaztatzen duen IT 05 txartelaren kolore-talde (multzo) bakoitzeko.
 - IT txartela 05eko [informazio-esteka](#).
 - IT Txartelak ofizios eskatuko zaizkio erakunde ziurtatzaileari, eta proba egiten den egunean ziurtatuta daudenak izango dira baliozkoak prozesuko baloraziorako.

Lanposturako behar diren It txartelak ez baditu, frogaldia amaitu arte luzatuko da egiaztapenerako epea.

DATUEN TRATAMENDUA

Lanbideren bidez hautaketa-prozesuan izena emanda dagoen pertsonak baimena ematen dio administrazio eskatzaileari datu pertsonalak tratatzeko, eta azken horrek konpromisoa hartzen du datuak eskaintzan jasotako helburuarekin tratatzeko, eta ezin dizkie datuak hirugarrenei laga, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 216ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6. artikuluan jasotzen den moduan (erregelamendu hori pertsona fisikoen babesari buruzkoa da, datu pertsonalen zirkulazio askeari dagokionez).

Prozesua gardena izan dadin, hautagaiei baloratutako hautagaitzen prozesuan lortutako puntuazioen zerrenda bidaliko zaie. Informazioa Datuak Babesteko

Erregelamendu Orokorraren 32. artikuluan jasotako segurtasun-neurrien arabera tratatuko da.